

“HITZARGUNE” KANPAINA 2015

(Merkataritza, ostalaritza, enpresa eta elkarten esparruan euskara normalizatzeko egitasmoa)

AURKIBIDEA:

1.- AURREKARIAK

- 1.1.- Aurrekariak (merkataritza eta enpresa arloa)
- 1.2.- Aurrekariak (elkarteen arloa)

2.- HELBURUAK.

3.- EGITASMOAREN OINARRIAK.

- 3.1.- 2013an beteko diren zeregin nagusiak
- 3.2.- Hitzarmenak berriak eta zerbitzu iraunkorra
- 3.3.- Jarduerak nork burutuko dituen

4.- XEDE TALDEAK

5.- KRONOGRAMA.

6.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

7.- AURREKONTUA

ERANSKINAK:

- 1. **eranskina:** 2013an egindako inkestaren emaitzak eta moldaketa proposamena.
- 2. **eranskina:** Enpresetako Euskara Planetarako diru laguntzen esleipena (2014koa).
- 3. **eranskina:** Berripapera (HITZARGUNE 1. alea)
- 4. **eranskina:** Alkarmendeko D eredu lan-mahaian adostutako protokoloa kirol federazioetan eragiteko.

1.- AURREKARIAK

Aurrekariak aurrekari, 2014an berrikuntza batzuk planteatu ziren “hitzarmengintza” egitasmoan, inkesta orokor baten emaitzak bitarteko.

Aipagarriena kanpainaren logoa eta izendapena izan da: “geure berbie euskeraz”-en ordeztu, “HITZARGUNE” izango dugu. Beste hobekuntza askoren barri I. eranskinean daude (inkestaren emaitzak eta moldaketa proposamena).

1.1.- Aurrekariak (merkataritza eta enpresa arloa)

1993.ean eratu, orduan hasiera eman eta hiru urteko lehenengo fase batean garatzeko taxutu zen egitasmoari ekin diogu zintzo gaur arte. Beraz, hemeretzi urte bete ditugu merkataritza arloa jorratzen, urteak pasatu ahala lan-sistema bat finkatu eta hobetzea ekarri diguna eta bidean beste esparru batzuetan (enpresetan, elkarteetan) ekiten hasteko eredugarri izan duguna.

2001ean merkataritza arlorakoa bideratuta ikusten genuen neurrian, **enpresa mundua lantzen hastea beharrezko jo genuen**, hurrengo urteetarako esparru horrekiko jokabideak finkatu asmoz. Bidea errazago egin zaigu enpresa munduan, arestian esan bezala merkataritzan urteetan taxutu eta egokitutako eredia izan dugulako.

Aipatu behar merkataritza eta enpresetara zuzendutako kanpainaren segimendu lanarekin lortu nahi dugun helburu nagusia: merkataritza eta enpresetako esparruan jokoan sartzen diren guztiekin harremanak landu eta ahal den neurrian merkatal zirkulu osoa kanpainan integratu, hau da, hornitzaile, saltzaile eta erosleekin (batez ere erakunde publiko, kirol eta kultur elkarte eta ikastetxeekin ditugun loturei probetxua atereaz) harremanak lantzea.

Bestalde, kanpaina honen bitartez, urte bakoitzean aurreikusi egiten da hitzarmenkide berriak erakartzea, sinatu bakoien artean ereduak hautatu eta harreman zuzena landuz. Gero ere, zerbitzua eskaintzerakoan, harreman pertsonala da kanpainaren zutabe nagusi.

Esan behar, hitzarmenkide kopuruak gora egiten duela urtetik urtera, baina 2014an egindako kanpainaren ondorioz 39 saltoki berri erakarri ditugula kanpainarako. Horrek, areagotu egingo du bisitaldia eta jarraipenerako lana.

1.2.- Aurrekariak (elkarteen arloa)

Elkarteei begirako hitzarmengintzaren nondik-norakoak argitzeko, Gernika-Lumoko Udalak 2003ko apirilaren 30ean onartu zuen Plan Estrategikoaren atarira jo behar dugu zuzen. Hagatik, hona hemen, literalki, **udalak 2002an burutu zuen diagnostikoan jasotzen zena:**

Bestalde, interesgarria deritzogu **Ainoa Etxebarria Andreak 2001ean egindako diagnostiko-lan erraldoiaren (Euskararen presentzia eta ausentzia Gernika-Lumon) emaitza batzuk** hemen islatzea, kultura, aisia eta kirol esparruei dagokienean batik bat:

“Euskaldun portzentajeen batz bestekoak kultura / aisia elkarteetan (%)”


Adin taldeak	Euskaldunak % (batezbestekoa)
HAURRAK	%93
GAZTEAK	%88
HELDUAK	%84
ADINEKOAK	%90

Iturria: Ainoa Etxebarriak jasoa (2001)

* Behin-behineko datuak eta hurbilketaak.

Parte hartzaile guztiak, taldekideen %100 euskaldunak diren elkarteak kantu, bertso, dantza, musika eta ekologiaz arduratzen direnek osatzen dute. %80tik gora euskaldunetz osotuta daudenak irteera, jaialdi, hitzaldi eta abarrekoak antolatzen dituztenak. Euskaldun portzentajea horretara heltzen ez diren elkarteak irratia saio eta historialaritzak lantzen dituztenak dira.

Hizkuntza erabilera kultur elkarteetan (%)



Iturria: Ainoa Etxebarriak jasoa (2001)

Normalean gazteleraz %20an entzungo da eta euskeraz edo elebitan %80 inguruk egiten dute (elkarteak). Baina badu gorabeherarik. Kide edo partaide guztiak euskaldunak direnean, euskera erabiltzeko tendentzia altuagoa da, bai harreman informaletarako, bai prestatutako ekintzetan. Gaztelerarekin tartekatzen dituzten ekitaldiak mahai inguru eta antzekoetan hizlaria erdalduna bada. Partaideren bat erdalduna denean gaztelerarako joera gehiago dago, nahiz eta gure ustetan ez da horrenbestera. Hau da, kide guztiak euskaldunak ez direnean euskera eta gaztelera, hizkuntza biak erabiltzen direla dioskute elkarteetako arduradunek eta antzeko proportzioan gainera, erdi eta erdi. Batzutan ahozko harremanak eta ekitaldiak euskerazkoak izan arren, bilera edo idatzizko formuletan gaztelera gailentzen da.

Euskaldun portzentajeen batz bestekoak kirol elkarteetan (%)


Adin taldeak	Euskaldunak % (batezbestekoa)
HAURRAK	%90
GAZTEAK	%81
HELDUAK	%60
ADINEKOAK	❖

Iturria: Ainoa Etxebarriak jasoa (2001)

* Behin-behineko datuak eta hurbilketaak

Haur eta gazteen artean euskaldunen portzentaia altua da. Helduengan, ordea, nahiko bajatzen da. Horrek elkartearen funtzionamenduan eragin nabarmena du, entrenatzaile eta monitore asko erdaldunak direlako. Kirol elkartearen jardura pilota, futbola, saskibaloia, mendi irteera edota auto lasterketekin lotutakoa da, batik bat.

Hizkuntza erabilera kirol elkarteetan (%)



Euskeraz %33tan entzungo ditugu entrenamendu, partidu edo antolatutako ekintzetan. %45 gazteleraz eta %22k elebitan. Euskera hutsean edo elebitan egindako erabilera %55ekoa da. Baina datu hauek irakurtzean kontuan izan behar da batezbesteko orokorrak direla. Ez dakigu zenbat pertsona diren euskera erabiltzen dutenak edo zenbatek egiten duen gazteleraz.”

Horiek guztiak kontuan hartuta, 2004an elkarteei begirako hitzarmengintza jarri genuen abian, “Geure berbie euskeraz” deitura hartu zuena.

2007an guretzat egokipen garrantzitsua gauzatzea erabaki eta egin egin zen, administratiboki eta lan-sistemari zegokionean hobetzeko bidea zekarrena: **banatuta genituen bi egitasmo bateratzea**, hau da, bata Merkataritza/enpresetarako kanpaina eta, bestea, elkarteei begirakoa. 2008an egonkortu egin zen jokabide hori eta egitasmoari jarraipena egitea erraztu digu ordutik ona.

Oinarri nagusia, atal guztietarako (enpresak, merkaritza, elkarteak), “hitzarmena” dugu, Gernika-Lumoko Udalarekin agente bakoitzak sinatzen duena. Gero, atal bakoitzak, merkataritza, enpresa edo elkarte arloa izanda, bidezko egokipenak ditu, baina lan-sistema berberari eusten zaio: harreman zuzena (bisitaldiak), zerbitzu iraunkorra,...

2.- HELBURUAK

Indarrean dagoen 2014-2017 eperako Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren arabera jokatzuz, 2015erako moldatu den Kudeaketa Planean aintzat hartu diren esparru, neurri eta ekintzak agertu behar hemen:

- **2. Helburu estrategikoa.- Euskararen erabilera:** euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza.

Esparrua:

6. Arlo sozio-ekonomikoa

6.1. Euskara planak zabaltzeko babesa eta laguntza ematen jarraitzea eta dirulaguntzen sistema etengabe hobetzea (Toki erakundeak)

6.1.4. Enpresa txiki eta ertainetan planak garatzeko aukerak eskaini eta areagotzea

- 6.1.4.1.- HITZARGUNE hitzarmengintza kanpaina garatu enpresa handi eta ertainetan
- 6.1.4.3.- Bai Euskarari ziurtagiriaren elkartarekin hitzarmena berriztatu elkarlanerako
- 6.1.4.2.- HITZARGUNE hitzarmengintza kanpaina garatu merkataritzan eta ostalaritzan

6.8. Euskara enpresa munduan erabiltzeari prestigioa ematea

6.8.1. Sustapen eta komunikazio ekintzak lantzea (kanpainak, esku-orriak, bisitak, hitzaldiak) hizkuntza kudeaketa egoki batek dakartzan onurak azpimarratzeko eta euskara kalitatearekin, lehiakortasunarekin eta ongi-izatearekin identifikatzeko

- 6.8.1.1.- Banan-banakako elkarrizketak egin merkataritza eta ostalariekin paisaia linguistikoak euskararen erabileran duen eraginaz

Esparrua:

7. Aisia eta kirola

7.8. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea (Toki erakundeak)

7.8.1. Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz lurraldeetako federazioetako jarduna euskalduntzeko plangintza egitea

- 7.8.1.1.- Alkarbideko kirol lan-mahaiaren bidez, kirol federazioetan eragiteko bideak jorratu

7.8.2. Herri edota hirietan kirol-arloan diharduten kolektiboekin lankidetzaprotokoloak bultzatzea, entrenatzaile, begirale, irakasle, prestatzaile, arbitro eta buruzagien hizkuntza-trebakuntza antolatze eta kirol-ekintzetan euskararen presentzia bermatzeko uneoro

- 7.8.2.1.- Hitzarmena sinatu herriko Klub eta kirol taldeekin, gabeziak identifikatu eta elkarrekin normalizazioa lantzeko

- **Helburu estrategikoa.- Helburu guztietako zehar lerroak.**

Esparrua:

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

14.7. Aisia eta kirola (Toki erakundeak)

14.7.1. Aisialdi taldeekiko lankidetzak bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko

- 14.7.1.2.- Hitzarmen sinatu aisialdi taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin jorratzeko

3.- EGITASMOAREN GARAPENA

3.1.- 2015ean beteko diren zeregin nagusiak:

- **Hizkuntza tailerra (“Zelan idatzi”)** eskaini elkartegintzako hitzarmenkidetara, azken hiru urteetan prestatutako materiala oinarri.
- **Ikastalde bereziak eskaini** merkataritza eta ostalaritzakoei.
- Egingako inkestaren arabera erakarrizako **hitzarmenkide berriekin** harremanak sendotu (36 merkataritza berri).
- **Hizkuntza aldaketak** eragitea urtean zehar:
 - Dendetan: 100 aldaketa.
 - Enpresa txikietan: 90 aldaketa.
 - Elkartetan: 60 aldaketa.
- **Hizkuntza indizea neurtu** (HINAT neurgailua) kanpainako hiru ataletan (merkataritza, enpresa, elkartegintza). Hitzarmenkide berri asko sartu direnez, ezin da aldeaz aurretik erabileran igoerarik izango den aurreikusitako erabilera datu orokorra 2014koaren aldean multzo desberdinarekin delako, ez dira hitzarmenkide berdinak izango.
- **Aldizkaria (berripapera) argitaratu**, urtean zehar ale bi kaleratuz (otsailean eta urrian). Ikusi 3. eranskina.
- **Administrazioarekin** hitzarmenkidetara mantentzen dituzten harremanetan euskararen erabilera areagotzeko konpromisoak finkatu, bisitaldiak eginda (Udalarekin, Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, INEM-Gizarte Segurantzarekin).
- **Begiraletza landu** (kanpainak gizarte eragileengan duen eragina neurtzeko inkesta): gizarte esparru desberdinetako 12 erakunderen bitartez burutuko da.
- **Kontseiluarekin eta Zirutagiriaren elkarrekin hitzarmenak** berretsi 2015erako eta bidezko sustapen lana egin.
- **Sektorekako lan-taldea sortu:** Sektorekako lan-taldeak sortuko ditugu, hartara merkataritza bakoitzaren beharretatik harago sektorearen premiei erantzuteko aukera landuko dugu. Eta batez ere, euskararen erabilera areagotzeko egin ditzakegun ekintza berritzaileak sortuko ditugu guztion

artean. Urtean bilera bat sektore bakoitzarekin. Lan-talde hauetan merkatarien elkartearen parte hartzea sustatuko da. Bide horretatik, gainera, euskarari ez ezik sektorea bere osotasunean aintzat hartuta hobekuntzak euskaraz proposatu eta bideratzeko aukera izan daiteke.

- **Merkatari+bezero lan-taldea sortu.-** Bezero eta merkatarien osatutako lan-talde bat jarriko dugu martxan. Bezeroak hautatzeko irizpideak hitzarmena sinatuta duten elkarte traktoreetako kideak izan daitezke. Urtean bilera bi egitea proposatzen dugu. Lan-talde honen kasuan ere, merkataritza eta ostalaritza arloan euskararen erabilera areagotzeko ekintza berritzaileak martxan jartzea izango da. Lan-talde honetan merkatarien elkartearen parte hartzea sustatuko da. Bide horretatik, gainera, euskarari ez ezik sektorea bere osotasunean aintzat hartuta hobekuntzak euskaraz proposatu eta bideratzeko aukera izan daiteke.
- **Komunikazio eta marketin plana.-** Komunikazio planaren helburu nagusia planaren inguruko sektoreko agente eta eragileei informazioa etengabe helaraztea da. Era berean, normalkuntzarako zerbitzu-eskaintza entitateen esku jartzea ere lortu nahi da urteko komunikazio planarekin. Lehenago aipatu dugun bezala, komunikazio eta marketin kanpaina irudi eta estilo berri baten inguruan antolatu nahi da eta 2014an finkatu dira oinarriak horretarako, 2015ean modu zehatzean gauzatzeko asmoa daukagun.
- **Komunikazio jarraitua.-** Urteko komunikazio ekintza jakinez gain, kanpainan parte hartu duten establezimenduekin komunikazio jarraitua bideratuko da. Horretarako baliabide aproposa da Facebook, oso hedatua dagoelako.

Facebookeko kontua

Gaur egun sarea sozialen artean erabiliena den Facebooken lekua edukiko du planak. Honen bidez, komunikazio jarraitua bideratuko da. Bertan jasoko dira: azken berriak, mezuak, hitzorduak eta argazkiak. Parte hartzen duten entitate guztiei Facebooken euskararen sustapenerako planaren lagun egiteko gonbidapena bidaliko zaie. Kontu honi esker elkarriketa etengabea izango da, eta aldi berean urtean egingo diren komunikazio ekintzak hedatzeko ere euskarri aproposa izango da.

Posta elektronikoa eta telefonoa

Facebook oihartzun handiko baliabidea izan arren, profil jakin batekoek ez dute erabiltzeko ohiturarik, beraz ohiko bideak eskainiko dizkiegu erabiltzaile horiei, posta elektronikoa izango da harremanetarako bide nagusia. Komunikazio ekintzen berri emateko bai bestelako iradokizun,

ekarpen edo antzekoetarako erabiltzeko aproposak dira posta elektronikoa eta telefonoa.

- **Sustapen plana.-** Sustapen jardueren helburu nagusiak: planeko partaidetza bultzatzea, herritarrak euskararen inguruan sentsibilizatzea, eta euskararen erabileran eragitea da. Era berean, normalkuntzarako zerbitzu-eskaintza herriko establezimendu, elkarte eta enpresen esku jartzea ere lortu nahi da sustapen planarekin. Sustapen planean bost ekintza nagusi jaso dira:
 - Sustapen kanpaina
 - Telefono mugikorretarako aplikazioa: erosketak egiteko
 - Aritu: hizkuntza portaerak
 - Berripapera eta aldizkari elektronikoa
 - Oizmendi telebistan hilean behin saio bat antolatu. Merkatari, enpresari eta elkarteetako kideekin.
- **Beste batzuk:**
 - **“Kirola Euskeraz!”** kanpaina oinarri, inkesta berezia egin entrenatzaile eta begiraleei eta azken urteetan abian jarritako kontraste taldeak eratu elkarte bakoitzarekin. Honekin lotuta dago Alkarbideko D eredu lan-mahaian egin den planteamendua, goi-erakunde bitartez kirol federazioetan eragitekoa alegia (ikus 4. Eranskina).
 - **Kultur eta aisi elkarteko kideekin azken urteetan eratutako bi kontraste taldeekin jarraitu**, kanpainako sarea hedatu eta finkatzeko eta hitzarmengintza kanpainako beste ataletakoekin harremanak normalizatzeari begira. Euskaraz funtzionatzeko “beharrizana” sortu behar da.

3.2.- Jarduerak nork burutuko dituen:

- **Euskara Zerbitzuak bere bizkar burutzekoak:**
 - Elkarteekin/Erakundeekin harremanak izan eta hitzarmena sinatzeko proposamenak landu.
 - Motibazioa eta urteko helburuak landu hitzarmen kide berri bakoitzarekin..

- Bai Euskarari ziurtagiriaren elkartarekin eta Kontseiluarekin hitzarmenak taxutu eta hitzarmengintzarekin uztartu (ziurtagiriaren sustapena,...).
 - Zerbitzu iraunkorrerako eskaerei erantzun eta, behar denean, zerbitzu iraunkorrerako adjudikazioduna den Artez enpresarekin zubi lana egin.
 - Enpresetako Euskara Planetarako lehenengo urratsak bideratu eta urteko diru laguntzak esleitu. (ikus 2. eranskina).
 - Koordinazio batzarrak eratu eta kanpainaren betetze-mailaren segimendua egin.
 - Urtean zehar burutuko den “Kirola euskeraz” azpiekintza bideratu (kirol federazioei lotutako Alkarbideko lan-mahaiaren dinamizazioa barru) eta hitzarmenkide diren kirol elkarten dinamikarekin uztartu.
 - Gauzaturiko lanei buruzko txostenak egokitu.
- **2008an Artez enpresari adjudikatu zitzaion zerbitzu-kontratua bukatu zen 2012ko uztaillean eta adjudikazio berria ere berberak lortu. 2014an beste bi urterako luzapena egin zaio.** Adjudikaziodunaren bitartez eta Euskara Zerbitzuaren zuzendaritzapean garatuko diren kanpainaren eginkizunak:
 - Hitzarmenkide berri bakoitzari buruzko hizkuntza egoeraren diagnostikoa egin, beharrianak neurtu, Diagnostikoaren arabera hitzarmena egokitu eta baliabideak eskaini.
 - .
 - Hitzarmenkide guztiei urtean zehar bi sasoi berezitan (maiatza-ekaina eta azaroa-abendua) bisitaldiak egin, urtean zehar izan diren ohiko harremanetatik aparte.
 - Hitzarmena sinatu dutenei zerbitzu iraunkorra eskaini (itzulpenak, errotulu edo kartel bereziak, hizkuntza aholkularitza, hiztegi elektronikoak, agiri-ereduak, agiriak.net, ikasare.net).
 - HINAT neurgailurako datuak jaso eta prozesatu (txostena osatu).
 - Kanpainaren begiraletzarako inkesta egin, hausnartu eta txostena osatu.
 - Kirol elkarteetan inkesta burutu eta kontraste taldeak eratu. Kultur eta aisi elkarten atalean ere kontraste taldeak antolatu.

- Komunikazio planarekin komunikazio iraunkorrarekin loturiko lanak betetzea.
- Lan guztiei buruzko txostenak egokitu eta Euskara Zerbitzuarekin ohiko koordinazio bilkurak egin bi hilabeterik behin.

4.- XEDE TALDEAK:

Hitzarmena sinatuta daukaten denda (137), enpresa txiki (48) eta elkarteekin (58) elkarlana burutzeko tresna dugu “Geure berbie euskeraz” Hitzarmengintza kanpaina.

DENDAK

Urtea	Egozan denda	Zarratu diranak	Kanpoan geratutakoak	Sartutako barriak	Guztira amaieran
2001	76	-	-2	10	84
2002	80	-	-6	5	79
2003	64	-	14	20	98
2004	98	5	2	9	100
2005	100	2	2	12	108
2006	108	7	-	15	116
2007	116	5	-	9	120
2008	120	2	2	4	120
2009	120	2	-	9	127
2010	127	1	-	5	131
2011	131	1	-	7	137
2012	137	1	-	4	140
2013	140	3	-	9	146
2014	146	9	-	39	176

ENPRESA TXIKIAK

Urtea	Egozan enpresak	Zarratu diranak	Kanpoan geratutakoak	Sartutako barriak	Guztira amaieran
2001	-	-	-	7	7
2002	7	-	-	2	9
2003	9	-	-	2	11
2004	11	-	-	11	22
2005	22	-	-	4	25
2006	25	1	-	6	30
2007	30	1	-	3	32
2008	32	-	-	4	36
2009	36	-	-	11	47
2010	47	-	-	2	49
2011	49	2	-	1	48
2012	48	-	-	-	48
2013	48	1	-	-	47
2014	47	-	-	-	47

ELKARTEAK

Urtea	Dagozan alkarteak	Sinatu daben taldeak	Sinatu ez dabenak	Desagertutak oak	Erantzun barik edo falta direnak
2004	72	37	6	3	26
2005	75	49	8	-	14
2006	75	51	-	-	12
2007	75	57	-	-	6
2008	75	57	-	-	6
2009	75	57	-	-	6
2010	75	57	-	-	6
2011	75	58	-	-	5
2012	75	58	-	-	-
2013	75	58	-	-	-
2014	75	58	-	-	-

Balorazio kuantitaboari buruzko hausnarketa egiterakoan, kontuan hartu behar da merkataritza eta enpresa arloetako xede taldea, gorenetik jota, 1.300 ingurukoa dela, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren epigrafe guztietan agertzen direnak batuta (enpresa, merkataritza mota guztiak, profesionalak, autonomoak,...) eta aintzat hartuta autonomo edo enpresa bera ere epigrafe desberdinetan jaso daitekeela. Beraz, xede taldearen estimazioa (enpresak gehi merkataritza) gutxi gora-beherakoa dugu: hitzarmenkide ditugu 188 (xede taldearen %14,46).

Aipatu behar da hitzarmenkideen artean esparru bakoitzeko ereduak eta garrantzitsuenak daudela (langile kopuruagatik, herrian duten eraginagatik,...).

Nabaria da elkarteen atalean izandako lorpena (75etik 58 ditugu hitzarmenkide, xede taldearen %76), baina euren baitan gehiago eragitea dagokigu.

Balorazio kualitatiboari begirako adirerazleak HINAT neurgailuak emango dizkigu, hitzarmenkideen arteko, eta atal bakoitzeko, erabileraren indizea azalduz. Datu horiekin urtez urteko bilakaera kontrolatzen ari gara.

5.- KRONOGRAMA

Urtarrila	● Komunikazio Plana finkatu / Kom. Iraunkrorerako ere ● Merkataritza eta ostalaritzako merkealdiko deiak ● Koordinazioa (Udala-Artez) ● Begiraletza ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Otsaila	● Astelehenetako merkatu plazako hitzarmen kanpaina ● Koordinazio bilera (Udala- Euskaigintza- Kontseilua) ● Kirol lan-mahaia (Alkarbide) / jarraipena ● Prentsa artikulua: 2012ko balantzea eta 2013ko egitasmoa ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Martxoa	● Merkataritza+bezero lan-mahaia eratu ● Sektorekako lan-mahaia eratu ● Enpresa txikietako bisitak ● Kultur eta Aisi elkarteekin kontraste taldeak ● Prentsa artikulua ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Apirila	● Enpresa txikietako bisitak ● Elkarreketako jarraipenak ● Kirol elkarreketako kontraste taldeak ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Maiatza	● Merkataritza eta Ostalaritzako bisitak ● Koordinazio bilera (Udala-Artez) ● Foroa / Bloga

	- Hizkuntza aholkularitza - Itzulpen zerbitzua
Ekaina	- Enpresa txikietako bisitak - Elkarteetako jarraipenak - Prentsa artikulua - Berripapera (19. alea) - Foroa / Bloga - Hizkuntza aholkularitza - Itzulpen zerbitzua
Uztaila	- Urte erdiko balantzea - Koordinazioa (Udala-Artez) - Prentsa artikulua: sustapen jardueren informazioa - Motibazio kanpaina - Foroa / Bloga - Hizkuntza aholkularitza - Itzulpen zerbitzua
Abuztua	- Astelehenetako Merkatu plazako bisitak (jarraipenak) - Prentsa artikulua - Foroa / Bloga - Hizkuntza aholkularitza - Itzulpen zerbitzua
Iraila	- Merkataritza eta ostalaritzako bisitak - Enpresa txikietako bisitak - Koordinazioa (Udala-Artez) - Ziurtagiria zabaldu (Udala-Euskaalgintza-Kontseilua) - Prentsa artikulua - Foroa / Bloga - Hizkuntza aholkularitza - Itzulpen zerbitzua
Urria	- Enpresa txikietako bisitak - Elkarteetako bisitak - Kultur eta Aisi elkarteekin kontraste taldeak - Ziurtagiria zabaldu (Udala-Euskaalgintza-Kontseilua) - Foroa / Bloga

	- Hizkuntza aholkularitza - Itzulpen zerbitzua
Azaroa	- Aldizkaria - Kirol elkarteetako kontraste taldeak - Hizkuntza tailerra - Koordinazioa (Udala-Artez) - Begiraletza - Foroa / Bloga - Hizkuntza aholkularitza - Itzulpen zerbitzua
Abendua	- Merkataritza: merkealdira aurreko deiak - Enpresa txikietako bisitak - Elkarteetako bisitak - Abixadan - Ziurtagiria banatu (Udala-Euskalgintza-Kontseilua) - Foroa / Bloga - Enpresetako Euskara Planetarako diru laguntzak esleitu - Hizkuntza aholkularitza - Itzulpen zerbitzua

6.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Eragileak:

- Euskara Zerbitzua: kanpainaren antolaketa, koordinazioa, harreman zuzenak, dinamizazioa eta zabalkundea.
- Kultur Etxea: azpiegitura (zerbitzuaren kokalekua) eta zabalkundea.
- Artez enpresa (aholkularitza eta laguntza tekniko).
- Urdaibai Rugby Eskola, kanpaina berezietarako begiraletza.
- Gizarte Erakundeen Kontseilua (hitzarmena bitarteko, Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean): merkataritza eta enpresetarako ekintzak.
- Ziurtagiriaren elkarte (Bai euskarari ziurtagiriaren sustapenerako)
- Euskalgintzako eragileak (Busturialdean euskaraz bizi Elkarte, ..., Kontseiluaren urteko ekintzak dinamizatzen laguntzeko)

Giza baliabideak:

- Euskara Zerbitzua: HNT1 teknikaria eta kanpainarako dinamizatzaileria.
- Busturialdean euskaraz Bizi (begirale bat).
- Artez enpresa (aholkularitza zerbitzuaren adjudikazioduna): koordinaziorako teknikaria, itzulpen zerbitzua eta kanpainako arduretarako teknikaria.
- Urdaibai Rugby Eskolako 6 begirale kanpaina berezietarako.

Diru baliabideak.- Euskara Arloak 2015eko udal aurrekontuan dituenak.

7.- AURREKONTUA

Gastuak

Zerbitzu-kontratazioa: aholkularitza, teknologia baliabideak (agiriak.net, ikasare.net, ikastaroak), HINAT neurgailua, zerbitzu iraunkorra (itzulpenak, eredu-egokipenak, errotuloak), txostenak,	35.000
Euskara Zerbitzuak kontrataturiko dinamizatzaileria: Kanpainaren dinamizazioa (bisitak) eta motibazioa landu, datu bilketa (HINATerako eta diagnostikorako), zerbitzu iraunkorrerako zubi lana, lanari buruzko txostenak egitea.	22.000
Geure berbie euskeraz (berripaperaren bi ale inprimatu eta banatzea)	1.200
Beste gastu batzuk (hitzarmenakideekin partekatutako ziurtagirien banaketarako jaialdia; ziurtagirien banaketa eta laguntza; sentsibilizazio kanpaina herritarrei eta hitzarmenakideei bereziki)	4.500
Enpresetako Euskara Planetarako diru laguntzak	9.000
Abixadan2014 (kirol elkarteekin antolatua)	1.000
Gastuak guztira	72.700

Gernika-Lumon, 2015eko urtarrilean.

Naiara Urberuaga Erkoreka
Kult. Hezk. eta Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizk. Normalizaziorako Teknikaria

1. Eranskina

ARTEZ ENPRESAK EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK ETA HORREN ONDORIOZ KANPAINAREN MOLDAKETARAKO PROPOSAMENA

2. Eranskina

ENPRESETAKO ERABILERA PLANETARAKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIA – 2014

ARAUDIA

I. ATALA - OINARRIZKO ARAUAK

- 1).- Honako diru laguntza deialdia Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko azaroaren ...ean hartutako ebatziaren arabera egiten da, ebatziari **erantsitako araudiari** eta Gernika-Lumoko Udalbatzak 2012ko azaroaren 28an izandako ohiko bilkuran onartu zuen “Diru laguntzen Ordenantza”-ri jarraiki. Araudi honetan finkatzen ez denerako, aipatu **Ordenantzara joko da** (onuradunen betebeharrak, emateko prozeduraren berezitasun administratiboak, diru laguntzak itzultzea, arau-haustek eta zigorrak).
- 2).- Tokiko Gobernu Batzarraren aipatu ebatzia Udaletxeko **iragarki taulan** argitaratuko da eta udalerrri mailan enpresa mailako Erabilera Plana onartuta daukaten enpresa guztiei, jakinaraziko zaie modu zehatzean.
- 3).- Onuradun izateko, **ezinbestekoa** izango da enpresako Euskara Plana indarrean izatea eta arau berezietako 2.ean ezarria betetzea.
- 4).- Deialdiaren berri jaso eta hamabost **eguneko epean** aurkeztu beharko dute onuradunek bidezko eskabidea, zehaztuko diren agiriekin batera.
- 4).- Hala denean, eskabideak berregiteko aukera izango da, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 27. artikuluaaren arabera.
- 5).- Diru laguntza hauek, udal aurrekontuko **5-4514-48100 partidaren bizkar** joango dira eta 2014 urterako 9.000 euro burutuko dira guztira.
- 6).- Diru laguntza emateko **instrukzioa Euskara Zerbitzuaren ardura** izango da; honek bidezko txostena egin ondoren, Hezkuntza zinegotziaren proposamena igorriko zaio **Tokiko Gobernu Batzarrari, ebazpena** har dezan.
- 7).- Ebazpena hartu eta handik eta zazpi egun barru, Tokiko Gobernu Batzarraren **akta iragarriko da udaletxeko iragarki taulan**.
- 8).- Ebazpena hartu eta 10 eguneko epean, gehien jota, **eskatzaileari jakinarazpen pertsonala** bidaliko zaio lege finkaturiko moduan, berak eskaera orrian aipatutako helbidera. Jakinarazpen horretan, ebazpenaren aurkako errekurtsoen berri emango zaio.

9).- Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo horiek ez badute araudi honetan eskatutako agirietako bat, eskaera egingo zaio eskatzaileari **hamar (10) lanegunetako epean hutsunea zuzentzeko** edo beharrezko dokumentuak aurkezteko. Horrela egin ezean, bi ondorio izan daitezke:

- Eskatzaileak deialdiari uko egiten diola ulertzea, falta diren agiriak orokorrak balira (laugarren arau bereziko 1. eta 2. agiriak).
- Eskatzaileak eskaera egiterakoan planteatutako egitasmoei buruzko agiriak faltako balira (laugarren arauko 3. agiria), egitasmo zehatz horiek kanpo geratuko lirateke.

10).- Diru laguntzak jasoko dituzten enpresek konpromisoa hartzen dute 2015eko urtarrilaren 31rako **garatzekoari buruzko Txostena aurkezteko**, jasotako diru laguntzaren erabilera ziur dezaten **zurigarriak** ere txosten horretan barne. Honako puntu hau bete ezean, jasotako diru laguntzak itzuli beharra izan daiteke eta doloa, errua edota negligenti bakuna bitarteko balitz administraziobideko hauspena litzateke.

II. ATALA – ARAU BEREZIAK

1).- Deialdira aurkeztu ahal izango diren enpresak **Gernika-Lumon kokatuak** izan beharko dute.

2).- Deialdi honetara aurkezteko, beharrezkoa izango da Eusko Jaurlaritzak eta **Bizkaiko Foru Aldundiak helburu berarekin egindako deialdietara aurkeztu izana**. Bete-behar honetatik salbuetsita egongo dira deialdietarako epealdia bukatu eta ostean egindako Erabilera planak dituzten enpresak.

3).- **Diru laguntzak emateko kopuru osoa eta baremoa**.- Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak egiten dituzten diru laguntza deialdietan eskatzaileei jarritako baldintzen arabera, kontuan hartu behar da euren bizkar aurrekontuaren %50a hartu behar dutela. Gernika-Lumoko Udalak deialdi honen helbururako 9.000 euro erabiliko ditu (aurrekontuko partida:

5-4514-48100) eta hurrengo arau eta formulei jarraiki banatuko dira diru laguntzak:

a.- Diru laguntzarako aurrekontu garbia edo depuratua delakoa jakiteko, Bizkaiko Foru Aldundiak erabilitako irizpideei eta ebazpenari eutsiko zaio.

b.- Bigarren, aurrekontu garbi horri kendu egingo zaizkio jasotako diru laguntzak eta euren bizkar hartu beharreko %50a, defizita kalkulatzeko.

ENPRESAK	Aurrekontu osoa	(Eusko Jaurl+BFA) Diru Lag	EJ+BFA Diru lag. %	Enpresaren derrigorrezko ekarpena (%50)	Defizita

c.- Hirugarren pausua izango da eskatzaile guztien defizitak batu eta bakoitzaren defizita diru laguntzetarako dagoen kopuru osora egokitzea dagokion proportzioan.

PROPOSAMENAK	Enpresa bakoitzaren defizita	9.000 €-ra egokitu bakoitzarena
	Guztien defizita batuta	Guztien defizita dagoen kopurura egokituta

3. Eranskina



Gernika-Lumoko merkataritza, ostalaritza, elkarte eta enpresak euskaraz

2014
01 zk.



IRUDI BERRIA KANPAINARAKO!

Iaz "Geure Berbie Euskeraz" kanpainearen ebaluazinoa egiten hasi ginan inkesta bidez.

Ebaluazino hori aurrez aurreko inkesten bidez egin dogu: alde batetik, kanpainen parte hartzen daberen hitzarmenakideei eta bestetik, kanpainen parte hartzen ez dabenei. Inkesta horren helburua programari buruzko interesa eta asebetetze mailearen datu estadistikoak zuzenean ezagutzea da eta horrela, eskeintzen dan zerbitzuan hobekuntzak proposatzea. Gai horretan nabaritu doguzan hobetzeko puntu nabarmenenak barrikuntzak eta komunikazinoa izan dira. Horreek kontuan hartuta, Geure Berbie Euskeraz kanpainearen irudi eta logo barria atara

doguz eta horren erakusgarri daukagu goiko irudia: HITZARGUNE. Hitzarguneraren barruan sartzen dira kanpainen parte hartzen daberen merkataria, enpresa txiki eta alkarteak.

Bestetik, komunikazinoari garrantzi gehiago emotea oinarritzeko dala igarri dogu eta horretarako bitartekoak jarri doguz: Hitzargune Gernika erabiltzaileagaz facebook kontua sortu dogu, eta bertan hitzarmenakide barriei buruzko informazinoa, Bai Euskarari Ziurtagiriari buruzko barriak... ipinten doguz.

ENPRESAKO PLANAK



Gernika-Lumon Euskara Plana daukien enpresak fase desbardinetan dagoz. Gernika Garbiketak enpresak 8 urte daroaz Euskara Plana garatzen eta urtez urte helburu asko bete dabez: idatzizko dokumentuak (aurrekontuak, fakturak...) euskaraz bialtzen deusez bezero euskaldunei, eta ahozko hartu-emonetan be euskerea da nagusi. Aurrerapauso horreek emonda, "Bai Euskarari Ziurtagirian maila igoerea izan gendun orain dala urte bi eta Zerbitzua Euskeraz mailea lortu gendun. Horrek aurrerapausoak emoten eta beharrean jarraitzen animetan gaitu" dinoe Gernika Garbiketak enpresakoek.

Orain dala 6 urte jarri eben martxan Euskara Plana Bengozarra Eraikuntza Metalikoak 1969 SA eta Ekin/Bizkargi Autoak enpresek. Bengozarra enpresan aurrerapauso dezente emon dabez. Gaur egun idatzizko dokumentuetan gehiago erabiltzen dabe euskerea eta aurrekontu, faktura...batzuk euskeraz

egiten dabez. Ahozko harremanetan be gora egin dau euskerearen erabilereak,

Gernika Garbiketak, Bengozarra eta Ekin/Bizkargi autoak dira Euskara Plana martxan dituzten 3 enpresak

eta bezeroekaz daukiezan hartu-emoten gehiago egiten dabe euskeraz. "Egindako beharraren eta ahaleginaren emoitza argia ikusi gendun iazko urte amaieran; Bai Euskarari ziurtagirian maila igoerea izan gendun eta Zerbitzua Euskeraz mailea lortuta" pozik dagoz Bengozarra Eraikuntza Metalikoak enpresakoak. Ekin/Bizkargi Autoak enpresan be hainbat aldaketa egin dabez 6 urte honeetan: autoen fitxa tekniko batzuk euskeraz jarri dabez, web gunea be ele bietan jarri dabe, nominak be euskeraz jasoten dabez, prebentzino plana be euskeraz daukie...

ERRENTA AITORPENA EUSKERAZ

Udalak, Bizkaiko Foru Aldundia eta UEMAgaz batera errenta aitorpena euskeraz egiteko kanpaina martxan dauka. Urtero, sasoi honetan errenta aitorpena egiteko unea heltzen da, eta askok gaztelaniaz egiten dabe. Baina euskeraz egiteko aukerea be badago! Gernika-Lumoko banketxe gehienak euskeraz egiteko aukerea eskaintzen dabe, baita HITZARGUNEko abokatu eta

gestoriek. Zuk zelan egin dozu? Animatu zara euskeraz egiten? Aurton, Udalak dokumentua zein hizkuntzatan inprimidu dan jakiteaz ganera, Gernika-Lumon tramitearen fase guztietan erabilitako hizkuntzaren datuak be jasoko ditu (ahozko jarduna).

Laster jakingo dogu iazkoak hobetu doguzan!

laz, eskualdean honako datuak jaso ziran:

UDALERRIA	AITORPENAK GUZTIRA	EUSKARAZ
Ajangiz	245	46 (%18,78)
Artea	393	32 (%8,14)
Bermeo	8.604	640 (%7,44)
Busturia	905	94 (%10,39)
Gernika-Lumo	9.064	812 (%8,96)
Muxika	717	74 (%10,32)



HIZKUNTZA PORTAEREI BURUZKO IKASTAROA

Hizkuntza baten edo beste baten egiteko orduan, erabakigarriak dira askotan itxura, ingurunea edota egoera. Zoritxarrez, aukeraketa hori euskararen kaltetan izan ohi da gehienetan. Edozein egoeratan, jarrera aldatu edota hizkuntzaren erabilera modu naturalean garatzeko ikastaroa emon gendun urrian. Ikastaro horretan merkatari eta enpresa txikietako langileek parte hartu eben. Ikastaroa ordu bi eta erdiko saio bakar baten emon zan Kultur Etxean. Eguerdi aldea aprobetxatu gendun, ordu biak laurden gutxiagotik laurak eta laurdenetara izan zan. Hizkuntza Portaeren gaineko ikastaroa izan zan, hausnarketa saioa; eguneroko egoera

desbardinetan zein hizkuntza erabilten dogun, zergaitik, aldatzea gura izanez gero zelan aldatu... Aldatzea erabagitzen dabenen kasuan, horretarako baliabide eta trukoak landu genduzan. Bertan egunerokotasuneko egoera desbardinetan zein hizkuntza erabilten dogun aztertu gendun, eta parte hartzaileek euren egunerokotasunean bizi izan dabegan egoera erreala azaldu, eta egoera horreetan zelan jokutzen daben azaldu eben. Ikastaroan parte hartu eben Urrutia Aholkularitzako Saioa eta Jazotek, Gotzone ume-arropen dendako Gotzonek, Berezi liburu-dendako Begok eta Navarro estetika zentroko Mari Carmenek.

ZER DA ARITU.EU?

Zeinegaz egingo zeunke euskeraz? Noizbait baten batek euskeraz erantzun ez dizulako haserretu bazara, edo zure koadrilan erdaldun bat etorri delako erdaraz egin baduzu, edo ¿queeeeeeeé? galderaren aurrean erdaraz erantzun baduzu inoiz, animo, aritu.eu zure lekua izan daiteke.



Egoera horiek eta beste batzuk aldatu, moldatu nahi badituzu aritu.eu-k lagundu zaitzake. Aldaketaren giltza askotan norberarengan egoten da, jakin badakigu ez dela giltza bakarra, beste batzuk ere badira, baina zuk zeurea. Aritu.eu euskeraz aritu nahi duenarentzat ARTEZ EUSKARA ZERBITZUAK garatutako laguntza gunea da.

www.aritu.eu



SUSTAPEN KANPAINA

2013. urte amaieran hasita herriko merkatarien artean sustapen kanpaina egin dogu. Ebaluzino inkestak egin genduzanean hainbat merkatariri galdetu geuntsan ia kanpaina parte hartuko leukien, eta inkesta pasatutakoen % 75ak udalarekin hitzarmena sinatuko leukela adierazi eban. Beraz, horreeri danori zuzeneko proposamena egin deutsegu.

Honeek danok dira (36 hitzarmenkide barri) ordutik HITZARGUNEKO kide barriak:

@GREEN, Alboka Taberna, Amumaren jatekoak, Amutio lurrindegia, BEEP Gernika, Boca a Boca, Charanga, Comercial Uriarte, Deykar tabakoak, Eguarditza harategia, Ekhiore parafarmazia, Eskutik Urdaibai, Ganbara, Gremios Gernika, INT Torrealday, Isabel frutak eta berdurak, Iturbe Anaiak, Izaskun harategia, Jare belar-denda, Kebi, La Botica de la Abuela, Lurgorri degustazioa, Saloki edertasun zentroa, Serigrafia Sestao, Sysbat Informatica SL, Ospa Taberna, Teo autoeskola, Tistel txakurren ileapaindegia, Zarrandi liburu-denda, Aitor ileapaindegia, Garoa interiorismo, Ibaurre errehabilitazio zentroa, Crespo Tapizeria, Legoie Taberna, Eskutik Urdaibai eta Izaskun harategia.





SASKIA APLIKAZINOA

Saskia app, erosketak egiteko mugikor zein tabletetarako aplikazinoa

Mandatuak, errekaduak, enkarguak, erosketak... non apuntatu ez dakizula, erosi beharrekoen zerrenda etxean ahaztu jatzula, azken orduan pisukideak edo bikoteak zer eskatu deutsun ez dozula gogoratzen... Saskia erosketa zerrenda mugikorrean egiteko aplikazinoa da eta egoera horreetan lagundu egingo deutsu. Erosketetako zerrendak egiten laguntzeko aplikazinoa da, baina, Saskiak beste funtzionalidade batzuk be badaukaz: zerrendak alkarbanatzeko aukerea emoten dau,

lagun bat baino gehiagoren artean osatzeko, kuadrilako bazkarietarako erosketa zerrenda osatzeko, etxeko armairuan dogunaren kontrola eroaten laguntzen dau, eta baita egindako erosketen kontuak ikusteko be. Euskara hutsez egindako aplikazinoa da. Adibidez, ez dakizula "lentejak" euskaraz zelan esaten diren... Saskiak emongo deutsu euskarazko ordaina. Nahi baduzu zure erosketa zerrendan gauzak gehitu edo kentzeko aukera emon ahal deutzazu nahi dozunari.

KANPAINA GERNIKAN

Gernikan Saskia aplikazinoa bultzatzeko kanpaina jarriko dogu martxan laster. Kanpaina horren helburua herritarrei aplikazino hori ezagutaraztea da, eta horreratako eskuorriak atarako doguz. Mugikorretan deskargetan daben herritarren artean saski edo otzara baten zozketa egingo dogu. Ezin dogu aitatu barik itxi, otzara hori osatzeko izan dogun Hitzarguneko kideen laguntza.

Aplikazinoa Google Playn deskargatu leike. Egin eizu proba, doan da eta!

Eta ganera, ordenadoretik be zerrenda osatu eta zure zerrenda-kideek mugikorrean ikusteko aukerea daukie: sartu eta kuxkuxeatu saskia.artez.net helbidean!



BARRIKETAN



AINHOA
Crespo Tapizeria

¿Cómo empezasteis a participar en la campaña? Una técnica del Ayuntamiento pasó por el establecimiento a realizar una encuesta y nos informó sobre la campaña "Geure Berbie Euskeraz". Hasta entonces sabíamos que se hacían rótulos... porque los veíamos en las tiendas, pero no sabíamos dónde teníamos que acudir.

¿Qué ventajas tiene utilizar el euskera en vuestro negocio? Hay gente que se expresa mejor en euskera porque es su lengua materna. Teniendo en cuenta que hay gente que prefiere hablar en euskera... siempre es positivo utilizarlo. Yo siempre recorro a mis compañeros...

¿Qué cambios habéis realizado desde que empezasteis a participar en la campaña? Hemos realizado algunos cambios poco a poco: por ejemplo, teníamos la plantilla de las facturas en castellano, y ahora la tenemos en euskera, también la firma digital de los emails... Desde que entramos en la campaña (casi un año) ya hemos realizado algunos cambios significativos...

¿Qué les dirías a los comerciantes que no participan en la campaña? Que reflexionen un poco y se pongan en el lugar del cliente. Por suerte los clientes son bilingües...



IDURRE
Izagirre Eraikuntzak

Noiz hasi zinien kanpainan parte hartzen? 10 urte izango dira kanpainan parte hartzen hasi ginala.

Zeintzuk dira ordutik hona egin dozuezan aldaketak? Aldaketa dezente egin doguz. Beti ahalegindu izan gara, euskaraz egiten. Gurasoak egozanean, ez eben euskeraz ikasi, baina Eneritz eta biok sartu ginanean euskeraz egiten hasi ginan idatzizkoan be. Fakturak... euskeraz jarteko laguntza euki dogu Euskara Zerbitzutik, baina lan handia izan da.

Gaur egun bezeroek euskera gehiago erabiltzen dabe? Hona etorten diran euskaldunek euskeraz egiten dabe, eta ez dakienek gaztelaniaz. Egia esan, gazteek gehiago erabiltzen dabe euskera, eta horren eragina nabarmena da.

Zer da Euskara Zerbitzuan gehien baloretan dozuena? Beti hor egotea eta laguntza eskeintzea. Batzuetan albo batera ixten dogu edo ahaztu egiten jaku eta bisitak egiten dabezenean gogoratzen gara, eta orduan egiten doguz aldaketak.

HITZAR GUNE KOAK

183
merkatariak

46
enpresak

59
elkartek

merkataritza

Zklik komunikazioa, @GREEN, Adela Garteiz, Ainhoa, Aitor ileapaindegia, Aizu, Alboka taberna, Aldatsa, Alkar Kirolak, Alluntiz, Amilotx, Amumaren jatekoak, Amutio, Ares Dastalekua, Argia Optika, Argibide, Arrien, Arronategi, Artetxe, Atabal, Atxike, Auto Cramer, Bake Eder kafetegia, Baraiazarra Soinu Etxea, Bareño, Bazar Txikia, Bed's koltxoak, BEEP Gernika, Bego eta Nerea, Bengo etxea, Berezi, Bidaguren Gozotegia, Bikaña, Bilbao Aseguruak, Boca a Boca, Boliña, Bonilla, Broncearium, Caserio Jatetxea, Charanga, Chic, Comercial Uriarte, Crespo, Decorev, Deikar, Dionisia, Dominguez Farmazia, Donibane, Duka, Dusi, Eguarditza, Eguren Optika, Ekhiore Parafarmazia, Elejaga Farmazia, Eroski, Eroski Bidaia, Eskutik Urdaibai, Etxabe Sport, Etxeko Makailoak, Eusebio Joyeros, F2 zapata dendea, Fan's Boutique, Fermin Zapata dendea, Fruitak eta barazkiak Isabel, Ganbara, Garoa, Garoa interiorismo, Gaubeka, Gerni Garden, Gernika Informatika, Gernika Ortopedia, Gernika Zerraildegia, Gernika-Lumoko Batzokia, Gizon, Gloss, Gonzalez Dekorazioa, Gotzone, Gremios Gernika, Gurea Altxariak, Haurren Mundua, Ibaurre, INT Torrealday, Inter Sport Extreme, Intxare, Irazabal, Iruksietak bitxi-denda, Iturbe anaiak, Izaga Ileaipaindegia, Izaskun Egurrola, Izaskun harategia, Izs Ileaipaindegia, Jabier Harategia, Jare, Jasone Ileaipaindegia, Jesus Mari harategia, Jolly Roger, Jose de Castro Fotodenda, Josten, Josu, Juanita Mugartegi, Junira Cafe, Karan estetika zentroa, Kebi, Kikaren Munduan, Kili-Kili, Kipu, KM.O, Kopi Laster, KOPIKOLOR, Kortezubike, Kotoi, L. de Carlos Tabakoak, La Botica de la Abuela, Labakoa, Ladis Design, Lagun On, Legoie, Leide, Lejarraga bitxi-denda, Lezama Taberna, Loiolene Barazkiak, Loreder, Lourdes fruta dendea, Lumiere, Lurgorri degustazioa, Mabe, Madariaga, Maite, Makuesgas instalazioak, Mari Karmen estetika-etxea, Mari Tere, Maria Luisa, Marian Orrategia, Marisol fruta dendea, Mendi Kirolak, Mikel, Naia, Nere Kabia, Nere Sustraiak, La Botica de la Abuela, Ogoño arraindegia, Ojanguren Elektratresnak, Olga, Omaetxebarria Farmazia, Omago, Omago Dietetika, Onena burdindegia, Ospa tabernie, Paraphernalia, Pedro Bilbao Gozotegia, Pepi Urdaitegia, Podium Garaikurrak, Quokka, Refan lurrindegia, Saloki, San Juan Ibarra, San Juan Loteria, Sandalio, Serigrafia Sestao, Sysbat informatika, S.L (Euskaltel), Tandem, Taos, Tecni Ruedas Gernika, Teo autoeskola, Tistel, Todo desde 100, Totorikaguena, Trenbide, Twente, Txankan, Txofi, Ugalde Ortopedia, Umeak, Uranga, Urdaibai Artezkaritza, Urdaibai Informatika, Uskola Baserri Tresnak, Vic Sec Tindategi Arina, Zallo Barri, Zallo Harategia, Zarra, Zarrandi, Zimela, Zubialde Okindegia, Zugatza Sukalde Altxari denda, Zurich

enpresak

Abaunza Aholkularitza, Aita Villasante Udal Euskaltegia, Akelarre Ostata, Algelek SL, Amunategui - Zalabarría Abokatuak, Apraiz, Areza Eraikuntzak, Arronategi Pinturak, Arroyo Banaketak, Arzanegi arquitectura, Arzanegi y Oar Abogados, Auka Bidaia, COR SL Gestoria, Disbaran, Exclusivas Gernika SA, Gakoak, Generali Aseguruak, Gernika Inmobiliaria, Gernika Kirolekua, Gondra Abaroa, Gorra Bulkanizatuak, Hiruluger, I. Izaguirre SA, Intxausti SA, Irazabal Ardautegia, Jose Luis Kristaldegia, La Caixa, Lanpyme, Leoncio Fernandez, Lur Estudio Inmobiliario, Macias Inmobiliaria, Mallukiza Aroztegia, MRW, Oka informtika zerbitzuak, Pbu Asesoros, San Isidro Nekazal Kooperatiba, Sanjo Inox SL, Sendagai, SERESNOR, Sorkunde Garcia Finka Administrazioa, Studio Mapping, Talleres Sanjo, Ttipi-Ttapa, Urrutia Abokatuak, Urrutia Asesoria, Zaindu Fisioterapia Zentrua

elkartek

Ades, Agiri Elkartea, Arkupe Pilota Taldea, Ehiztari, Arrantzale eta Tiratzaleen Elkartea, Emakumeen Futbol Taldea, Etsaiak, Gernika Futbol Sala, Gernika Off Road, Gernika Racing Elkartea, Gernika Saski Balo Elkartea, Gernika Sporting Futbol Taldea, Gernikako Arku-Tiroketa Elkartea, Gernikako Rugby Taldea, Goizale, Jai Alai, Kosnoaga Igeriketa Elkartea, S.D. Gernika Club, Sociedad Ciclista Gernikesa, Urdaibaiko Rugby Eskola, Urdaibikers Motorzaleen Elkartea, Aiuri, Andra Mari Korala, Arrano Kultur Elkartea, Bake Leku, Bakearen Arbola, Barrutialde Antzerki Taldea, Busturialdean Euskaraz, Elai Alai Dantzari Taldea, Gaudeamus Korala, Gazteak Kultur Taldea, Gernikako Arte Eskola, Gernikako Bertsolari Eskola, Gernikazarra Historia Taldea, Goizeko Izarra Gazte Taldea, Hilargi Lore, leup Gazteen Elkartea, Kosnoaga Gazte Taldea, Makatz Iturri Taldea, Makazaga Musika Alkartea, Musikeder, Ostargi Abesbatza, Satorgorri, Zantzoa Euskal Kultur Elkartea, Zine Klub, Alargunen Elkartea, Allende Salazar Ikastetxeko Guraso Elkartea, Asinsoc, AVIFES, Elizbarrutiko Karitas, Emakide, Gernikako Emakume Elkartea, Gernika Gogoratuz, Gernika-Lumoko Merkataritza Elkartuak, Gernikako Ekologi Lan Taldea, Gernikatik Mundura, Ideasur, Odolkideak, Tiris Gernika Sahararen Alde, Turdaibai, Urdaibaiko Perretxikozaleak Elkartea

HITZARGUNE TELEBISTAN

Komunikazio arloa lantzeko, Oizmendi Telebistarekin elkarlanean Hitzargune programa egongo da ikusgai udatik aurrera. Bertan, Hitzargune kanpainako kideei alkarrizketak egingo deusez, Hitzargunek antolatutako kanpainen barri emon, euskerazko terminologia lantzeko lehiaketak antolatu... Beraz, egon adi, hilean behin emitiduko baita programa hau!



? BA AL ZENEKIEN ...

2012ko abenduan PARTAIDETZA PROZESUA jarri zan martxan, eta Euskara Batzordeak DINAMIZAZIO SAIOAK antolatu ebazan. Horregaz, pertsona desberdinen ikuspuntutik plana errealitatera hobeto egokitu ahal izan da. Lan guzti hori eginda, orain onartzeaz dago 2014-2017 eperako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.

Hona jo: www.gernika-lumo-euskaraz.com

BULEGO ALDAKETA

Orain HITZARGUNE kanpainako bulegoa Artekale, 8an daukazu; 3. solairuan. Azken urteetan Kultur Etxeko lehenengo solairuan egon gara, baina 2013an bulego aldaketa egin gendun. Beraz, HITZARGUNEKO bazara edo kanpainan parte hartzeko interesa badaukazu, hurreratu zaitez bertara eta behar dozuzan argibide guztiak emongo deusguz.

hitzargune@artez.net - 688 628 117

4. Eranskina

**Alkarbideko D ereduko lan-mahaian adostutako
protokoloa kirol federazioetan eragiteko.**

TXOSTEN-PROPOSAMENA

HELBURUA

ALKARBIDEN, BIZKAIKO EUSKARA ZERBITZUEN BILGUNEAN, KIROL ARLOAREN NORMALIZAZIOA DELA ETA, SORTU DEN KEZKARI KONPONBIDEA EMAN NAHIAN, ERATU DEN LAN-MAHAIK PROPOSAMEN ZEHATZA BIDERATZEA

AURREKARIAK

- **Alkarbideko eredu desberdinetako lan-mahaietako ustea** da kirolaren eragina nabarmena baino nabarmenagoa dela euskararen normalizazioan:
 - Eskola kirolean eta gazteekiko langintzan inplikaturik dagoen jende andana.
 - Haurrak eskolaz kanpoko ekintza gisa ez ezik, klubetan ari dira gero eta gazteago, eskolaren eraginpetik kanpo.
 - Haur eta gaztetxoek hortxe sortzen dituzte koadrilak eta, era berean, esparru horretan gurasoen arteko hainbat harreman ere garatzen dira.
 - Hizkuntza ohiturak finkatzeko adin tarte garrantzitsuenak dira eta funtsezko esparrua da horretan diharduten haurrek eta gurasoen hizkuntza ohiturak bideratzeko.
- Euskara Zerbitzuek udalerri mailan dihardute Plan Estrategikoen arabera ekintzak eta kanpainak bideratu nahian eta, askotan, kirol elkarteekin hitzarmenak sinatzen dituzten arren, gaundiezinezko muga batekin egiten dute topo: **kirol federazioak**. Hauek beste maila bateko erakundeak izanik, federazioen diagnostikoa egin zen Kirol Zuzendaritzaren laguntzarekin (1. eranskina: Euskararen sokak etenik ez!).
- Hortik aurrera, **gaia lurralde mailako kirol erakundeekin lantzea** ebatzi zen eta informazio zuzena jasotzeko batzar berezi bat ere izan zen 2011ko apirilaren 1ean (2. eranskina: akta).
- Hurrengo pausua, **lan-mahai berezi bat eratzea** izan da eta, horixe xede, egin zen 2011ko azaroaren 10ean bilera (3. eranskina: akta).

PROPOSAMENA

Beraz, aurrekariak kontuan hartuta, Kirol lan-mahai honen izenean, atsegin dugu Euskara Zuzendaritzako eta Kirol Zuzendaritzako Arduradun nagusiei honako proposamena egitea:

Kirol Federazioek kirol esparruan duten eraginagatik, dagokien jardun eremuan euskararen normalizazioa lortzeko **hausnarketa egitea**, hurrengoak abiapuntu:

1).- Kirol Zuzendaritzak Kirol Federazioekin egiten dituen **hitzarmenetan** (eskola kirola, kirol txapelketa ofizialak eta abarrekoetan) hizkuntza irizpideena lantzeko **zehaztapenak egitea**, federazioen izaera erdi-publikoa eta dituzten eskumen publikoak

aintzat hartuta. Zehaztapen horiek bete ezean, eta udaletatik kexarik helduz gero, nolabaiteko neurriak hartzea (gutunak bidali eginbeharrekoa gogorarazteko...).

2).- Federazioen jarduna, bai barrukoa zein kanpora begirakoa, euskararen normalizaziorako egokitzearen (batik bat Eskola Kirolari lotutako ekintzetan), Kirol Zuzendaritzak, Euskara Zuzendaritzak, edo biak, dagokionak, behar dituzten **baliabideak eskaintzeko moduei buruzko hausnarketa egitea** (hitzarmen bidez, Dekretu bidez,...), 2013rako nolabaiteko konponbidea islatzeko asmoz.

Azken puntu horri dagokionez, federazioen euskararen erabilera sustatzeko ekimena zein zuzendaritzak edo biek hartuko duten erabakita dagoenean, orduan hasiko da berriro lanean Kirol lan-mahaia, irtenbideak proposatzeko eta Bizkaiko udaletako euskara zerbitzuen interesak adierazteko.

3).- **Arestiko bi puntuetan esandakoa, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuari estu-estu lotuta doa**, hau da, Euskadiko Kirol Federazioetan, besteak beste, euskararen erabilpena arauzkotzen duen Dekretuari. (4. eranskina: Dekretuko XIII. Titulua).

Kirol lan-mahaiaren partaideak:

Asier Intxausti
Kirol Zuzendaritzaren ordezkaria

Patxi Alberdi
Euskara Zuzendaritzaren
ordezkaria

Fermin Elexpe
Euskara Zuzendaritzaren
ordezkaria

Bittor Zarrabeitia
D ereduko koordinatzailea

Fernando Ruiz
C ereduko koordinatzailea

Nerea Laskibar
Alkarbideko teknikaria